



## **Bezero segmentua**

Gure bezero segmentuari dagokionez, irizpide ezberdinak erabili ditugu xede bezeroa definitzeko. Alde batetik, maila sozioekonomiko ertaineko familiek osatuko dute. Izan ere, maila sozioekonomiko baxua daukatenek, ez dute beraien dirua gure webguneko produktuak alokatzen gastatuko. Bestetik, maila sozioekonomiko altua dutenak, produktuak alokatu ordez, erosteko ahalmena daukatelako.

Adinari dagokionez, gure targeta 25-60 urtekoa izango litzateke, gure produktua alokatzeko maila ekonomiko minimoa behar delako, eta horretarako lanbide bat izan beharko du pertsona horrek webgunea erabil ahal izateko. Horretaz gain, ez dugu uste 60 urtetik gorakoek interneta erabiltzeko ahalmen edo ohiturarik daukaten.

Gure bezero targeta familiei zuzenduta dago batez ere. Haietan adin ezberdineko kideak daude, eta gure produktua alokatzeko giro onean daude: asteburu baterako plan bat egiteko adibidez, asko disfrutatuko dute alokairuan jartzen dituzten produktuen eskaintza handiarekin.